

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Begoña Ansotegi Txakartegi Begoña
Sagunto*

*Lekeitio,
Bizkaia (1928)*

Aurkibidea



Biografia



1928ko abuztuaren 15ean jaio zen Puerto de Sagunton (Valentzia). Bere gurasoak lekeitiarrak ziren eta zazpi neba-arreba izan ziren, horietako asko gazterik hil ziren. Lau urte zituela ama eta lau neba-arrebagaz Lekeitiora bueltatu ziren, aita eta bi neba Valentzian hil ostean. Zortzi urterekin, gerra sasoiari, Ferrolera ebakatu zituzten eta bertan egon ziren sei hilabetez. Lekeitiora bueltatu eta 12 urtera arte mojen eskolara joan zen. Lan ezberdinetan aritutakoa da Begoña: 12 urtegaz umeak jagoten; 13-14 urtegaz abarketak egiten; 17 urte zituenetik saregile eta dei egiten; 19 urtez kabana ezberdinetan aritu zen; eta, azkenik, 1972an jubilatu arte dei egiten aritu zen bere senarraren baporean, Antiguako Aman. Santiago Arrizabalagarekin "Santana" ezkondu eta hiru alaba izan zituzten.

Zintak

LEK-003

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Akarregi, Leire - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2009-11-23
- **Iraupena:** 140 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

LEK-006

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2009-11-30
- **Iraupena:** 115 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Don Isidro medikua, Lekeitioko bigarren jaungoikoa

- **Erref:** LEK-006/002
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:01:53. **Bukatu:** 00:04:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Don Isidro medikuak emagin lanak ere egiten zituen. Ume asko jaio zen harekin. Ondarroatik ere etortzen ziren umea izatera. Matrona batek laguntzen zion. Oso mediku ona izan zen; behartsuei ez zien kobratzen. Ondarroarrek zioten don Isidro zela Lekeitioko bigarren jaungoikoa.</p>

Transkripzioa

- Ta hor eon zan Don Isidro. Baiña hartu eban fama handidxa, partero. Ze, karo, umik... umetan jaidxo zan Arranegidxan ordun Don Isidroaz! Niriak jaidxota euazan, baiña niriak euki ta gero hasi zan. Ondarrutik be halantxeik etorten zan jentia, Don Isidroana. Bestelan, mediko be eitten eban lez, baiña partero be, hantxen, bai. Mari `Kartero´ esaten eutsen, Maria, ez jat akordaten apellidua zein eukan, alabia Amparo eukan ta seme bat be bai. Ta Maria egoten zan “como matrona” berari laguntzen.

- Beran alabia zan?

- Ez, bestelan, andra bat matrona modura ibili zana hori, partutan laguntzen. Hori Maria ibiltten zan, Don Isidronera juan arren, etxian -nik be etxian euki nebazen hiru ta nire modura beste askok etxian lehen. Gero, Don Isidro hasi zanian Arranegidxan, ordun asko haraxe juten zirian. Ta, bestelanik, Mari `Kartero´az.

- Eta gomutan dozu zelan pagetan dotsazuen, diru emoten otsazuen medikuari edo matroniari?

- Ez, beraaz eitten eban lez biharra, karo, asegurotik zan lez, asegurotik. Don Isidrok askori, pobriari, bateren bateri, bestela bisittan junda be, askori, ezagututen ebazanak asko igual ez eutsen kobraten konsultia be. Pobrien modura. [Bera ya] herritar [...] bera... Familidxa danak ez zirian bertokuak eta, berari, karo, ezagututen ebazanak... Gure gixonari egun baten rayuk-eta ataratia ta golpia hartunda itsasotik etorriik ta Don Isidrongana. Ba hara jun barik ambulatoridxora, ba, Don Isidroana. Ta “Hombre Santana”. “Santana” esaten eutsen. Mutrikokua zan aittitta. Ez dakitt aitta, aitta berton [...] jaidxo, baiña Mutrikutik Santa Ana baserridxa, Ondarroara orduko, han eskumatara. Ta ipintten eutsen horretxegaittik hori, mote modura, neuri “Sagunto” ipinttia modura, hareri be “Santana”. Manuel “Santana”, Santi “Santana” ta Fausto “Santana”, ba danak zirin “Santana”k. Gurian, Santik, ingresata egon zanian Crucesen be, bost bat urte-edo ibili giñin ta, baiña ya einda eukan medikuaaz ta esaten eutsan “Cuando vengas a Lekeitio no preguntes por Santi Arrizabalaga ¿eh? Tu pregunta Santi Santana” medikuari esaten eutsen, “tu”-az. Esaten neutsan “medikuari `usted´ edo”, “Ze `usted´? Berak be `tu´ esaten nau, ta neuk be `tu´ berari. `Usted´az hasten banaz, ganera, ez dot azertako ondo” esaten eban. Lepotik-eta agarreta: “¿Qué tal, qué tal majo, Miguel? ¿Qué, qué dices?” eta esaten eutsazan medikuari. Bost mediko grupo bakoxtian, eta bera jefe, hori [...] grupokua [...]. Ta hamen Don Isidrok, bueno, famia hartu eban. Ondarrukuk etorten zirian. “Zuek daukazue suertia, daukazuez Jaungoiko bi: bata zeruan, ta bestia Lekitton, Arranegidxan, Salinas. Bigarren Jaungoikua. Lekittarrok suertia daukazue”.

2. Erreuma eta umorea

- **Erref:** LEK-006/004
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:06:22. **Bukatu:** 00:07:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Medikuak amari erdaraz esan zion "reuma" zeukala. Alabak ea hori zer zen galdetzean, amak azaldu zion "umorea" zela (horrela esaten zitzaion garai batean). Begoñak ere badu amak utzitako herentzia hori.</p>

Transkripzioa

Ta hurrengoko egunian be jun giñian, ta hurrengoko egunian erderaz esplika eutsan ta "reuma tal y cual". Desietan neuan handik urteteko, despatxotik, amari preguntateko ia reuma zer dan. "Ama, zer esan dau daukatela, zer da reuma?" "Reuma? Umoria. Zuk [eukin...]?". Eske ordun "umoria" esaten jakon. Umoria daukola, umoria, gero neuk be umoria. Besua beti geldik egoten jakon hamar-hamabost egun be bai, ta neri be halantxeik geldik egoten jaten gero. Hamar urteaz ez, baiña gero, hamazortzi urte daukatela-edo bai, neuk be holantxek, amak eukitten eban modura, eskua zirkiñik be ez, erantzi be ezin ein. Hamendik ebai tirantiak eta [eten] ta amak-eta lagundute. Bera balitz be launtzen eutsaun ta. Ta hamen umoria. Hamen... "Amak ez nau itxi erentzidxarik -gero be esaten neban txiste modura-. Amak ez naben itxi erentzidxarik, baiña umoria itxi naben".

3. Berorika medikuari eta abadeari

- **Erref:** LEK-006/005
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:07:12. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

Berorika egiten zitzaien medikuari eta abadeari. Ondarroan gehiago Lekeition baino. Orain zuka egiten dio don Benito bikario zine zaleari. Adinkideak dira.</p>

Transkripzioa

- Lehen esan dozu medikueri-eta "de usted" eitten eutsazuela erderaz.
- Bai.
- Ta euskeraz?
- Beori. Beorreri, beori, beorrek esaten dabenari, beori, ba [...] badaz, ba, beori.
- Orduen, abadiari be bai?
- Abadiari be bai, beori.
- Ta hori beti?
- Hamen baiño gehidxo eitten zan, ganera, Ondarruan. Gu be lehelengo, baiña "Ondarruan beori esaten dabe, usted esan barik", eta, ba, gu be ez gara gitxio eta. Baiña ez, hasitta euan berton be beorika medikuari esaten, ta" ama, beori esan bihar jako /bijako/ medikuari", "bai, usted esatia moura, ba, beori". Beorrek emoten banau, beorrek eitten banau, ba, beori. Ta abadiari be bai. "Egun on [...]" ta "bai, beorreri be bai!
- Ta danok eitten zenduen? Umiek, nausidxek... danak berori eitten eutsazuen?
- Bai, abadiari-ta. "Egunon" ta "bai". Zeozer kontestaten eban berak ta

“beori be bai” ta, ba, “beorrek be bai”. Erdera, ba, “sí señor” abadiari, baiña. Ordun errespeto guztiaaz, ganera, abadiak be saludaten zenduzan. On ez dao holako saludorik, abadiari on "baf", gero lepotik agarrata igual eruten dotsue mutillak eta bale.

- Baiña oin be berori...

- Ez, on ixenetik. Ez, on ez. On zu, zu ta zu, don Benitori be, bikaridxu ixan arren. Neu beste urte dauko. Egun bat, egun biren aldi daukau. Abuztun hamahirukua ha ta ni hamabostekua.

4. Antzerkia eta gau-eskola 'Acción Católica'n

- **Erref:** LEK-006/009
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:12:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Acción Católican antzerkiak egiten ziren gaztetan. Lokal ederra zen. Gaueko eskola ere bazen etxe horretan.</p>

Transkripzioa

- Lehengo egunien komenta zendun gero Eskolapian "Acción Católica".
- "Acción Católica", bai. Hantxe Banko Bilbao daon tokidxan "Acción Católica". Ba mutil gaztiak, neskak ez, mutillak eoten zian han gehidxo. Abade bat euken eurakin eitten zana kargu-edo berton. Bueno, ta eitten zirian antzerkidxak, lantzin antzerki bat eitten zan. Polittak, ganera, eitten zirin, e? Ta haulantxek beteten zan enseidako "Acción Católica"n teatru dola ta, ba, danak "Acción Católica"ra.
- Bertan, lokalan?
- Bai, lokala ederra da ta, ezkatza be baeukan lez, [...] ezkatza, gero eszenaridxuen tokidxa be bai, zelako teatro polittak eitten ebezen! Neska itsu batena, zelako politto eñ eben. Lekittarrak. Auntxen be gogun daukat, Jose Mari Aranburu, hil zan baiña, ta neskia ez dakitt, ba, beren andri bazan ala... Baiña, karo, [haxe kontateko] ta neskak. M^a Luisa Gabiola, hor konpaiñian be kantaten dabena, abos fuertia; bueno, koruan be badao. Harek be [...] kuadrillia. Niri iñoix esan eusten juteko, "ez, ez. Ez daukat astirik". Gu ordun "Acción Católica"n barik eoten giñian, nahi dabenak, baeuazan ni baiño zaharrauak etorten zirinak, umetan dotriñarik ikasi ez ta, ba, dotriña ikasten. Emoten eben, ba, dotriña hantxe, [astetia], ba, hantxe, "padre nuestro" ta, ba, nik banekidxazan, ezta? Baiña gero beste gauza batzugin ta ba. Ta gero ez zekidxenak, eskolan ibili ez zanak-eta, ba, emoten eben lekturia, leidu, eta guk eskribidu. Ta ez zekidxenak eskribiduten ta, bat eukitten eben alboko aldian. Karo, ni jun nintzan eskolara, baiña harek, eskolara bakuak zirinak-eta, ba, leidunten ta eskribiduten, ta hantxen, gabaz, hantxe ikasi eben, behiñik behin.
- Ta gabaz?
- Bai, gabaz eukitten gendun, zortziretan edo.
- Gabeko eskolak edo?
- Bai, gabeko eskolia. Ta edozenbat neska eoten zirian. Mutillak "Acción Católica"n eoten zirian, ta gu haraixe eskoli... Bueno, mutillak bertan emongo eutsen ta... Gu, neskak, lantzin [bat] hantxe, ontxe Don Benito ta bixi dizen tokidxan. Karo, han bertan kalia, bertan euan eskolia.

5. Goraburu eta Beitia zinemak

- **Erref:** LEK-006/010
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:12:53. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Zinera asko joaten ziren gaztetan; zine mutua zen hasieran. Gustura joaten ziren "beltzen" gorabeherak ikustera. Goraburu eta Beitia ziren herriko zinemak.</p>

Transkripzioa

- Ta habitaziño baten. Karo, on horrek [...], baiña lehen beste etxe batzuk zirin ta on barriztuta dao, ta lehen hantxe euazan eskolak. Ta juten giñin umetan be, emoten ebezen -ta haretxek ikusten pozarren gu- baltzen zinia, indidxetako baltzen zinia. Ume koittaduk ikusten genduzanian ortozik eta ba. Mutuak zirin, ganera, osake "películas mudas". Baiña haretxek ikusten pozarren. Gerorutz atara ebezen berbak ataraten ebezenak, baiña

mutuak. "Guazen mutun pelikula polita [...]", beti haretzek baltzenak ikusten, seminaristak. Monjak juten zirinak bertara ta hori. Ta politto ikusten genduzan arratsaldian haretzek ziniak, besterik ez daukaun lez, ba, haixe. Ha debalde ixaten zan lez, arratsaldetan eoten zan, domeketan, hiruretan, seiretan ta bederatzitan, ordun txandan. Gero, hiruretakua ez dakitt bostetan ipintten baeben ala kendu eben, gero zazpiretan ixaten zan, behin arratsaldeko zazpiretan, ta gero bederatzidxetan, gero bederatzita erdidxetan, gero hamarrera aillaa zan, baiña, bueno, on hamarretan ixaten da antzanequak.

- Ta hori nun ixaten zan, bertan...?

- Han, Goraburun, hortxe batzokidxa don tokidxan Goraburu zinia, ta Beitia daon tokidxan Beitia zinia. Ta gero atara eben ontxe zine barridxa daona, gero hori ixan zan. Bestelan Goraburu lehelengo beti, Goraburu zinera. Gero Beitia. Beitia be zaharra zan, e?

6. Zinean larri eta estu txiklelea irenstearren

- **Erref:** LEK-006/011
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Sasoi berekoak zirela uste du Goraburu eta Beitia zinemak. Gogoan du lehenengo koloretako filma, "La Pandilla". Txiklelea irentsi zuen nahi gabe eta anaiak beldurtu zuen esanez hil egingo zela. Etxera joan zirenean amak errieta egin zion anaiari.

7. Talaieruaren ke-seinaleak antxoa "blankuria" ikusitakoan

- **Erref:** LEK-006/014
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:18:36. **Bukatu:** 00:19:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:

<p>Talaia-zaina ('talaixerua') talaian egoten zen arraina begiratzen, antxoa-eta agertu zain. "Blankuria" agertzen zenean keaz egiten zituen seinaleak. Gizonezkoak arrapaladan sartzen ziren barkuetan lehenbailehen itsasoratzeko. Jendea begira egoten zen talaiaitik.</p>

Transkripzioa

- Lehen komenta zendun talaidxero bat egoten zala...

- Bai, talaidxan, seiñero moura. Seiñerua esaten eutsen. Seiñerua ixaten zan, talaidxerua aparte. Talaidxerua eoten zan han, arraiña bijilateko, jeneralian hamen antxoi-ta, ba, agertuten zanin-ta, ezta? Ta antxoba, antxoba manjuja esaten jakon, blankuria be bai esaten jakon. Talaidxeruak ikusten ebanian blakuria dao... Baporak igual itsasuan edo portuan. Ta

blankuria [...] eĩñ dala, ta eitten eban keiaz, talaidxan keia, eitten eban seña. Ta "han, blankuria daola!". Mutil ta gixon hartzen eban karrera, euren baporetan ez bazan be, lehelengo daon bapora, ez jakon ixaten arduraik nun sartun. [Kuestiñoi] zan sartun ta gero, ba, Konpañian be eitten zirian igual batak hartun, bestiak igual [kortxua ein dabela], ta Konpañia be bai, erdi bana, hori be eitten eban. Baiña... Nun enbarka dan, ba, hantxe enbarka danak, ze arraiñ erun daben, ba, partillia hantxe hartzen eban jun dan mutillak. Baakixu ze martxia hartzen eban? Talaidxeruak ein haura seiña blankurak daoze la ta bai, ba, bapora guztiak, ahal danak [...] montaten zirian ta abantin blankuraa. [Oseake] talatik bestiok beira, kaña zelan botaten daben, "harek enbarka dau, han dao, alaten dao auntxe arraña". [...] Ta hori ixaten zan talaidxerua.

8. Ezagutu dituen ta talaiazainak

- **Erref:** LEK-006/015
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:19:56. **Bukatu:** 00:21:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:

Gogoan dituen talaieruak: Manuel, Leandro, Anton... Talaierua ez zen talaian bizi, baina bazuen sukaldea eta jateko tokia. Begoñak nahiago du lasterbidetik igotzea. Aurten ere izan da talaian.

9. "Ai, Lekeitio, bonito pueblo"

- **Erref:** LEK-006/017
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:28:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:

Oso kantaria da bera. Taldean kantatzen zuten. Letrak asmatu eta musika jakin bati egokitzen zizkien nebak. Gogoan du bat: "Ai, Lekeitio, bonito pueblo, eres lindo desde que te conocí..."

10. 'Sagunto' eta bere lagunak tabernaz taberna kantari

- **Erref:** LEK-006/018
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:28:33. **Bukatu:** 00:29:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:

<p>Begoñaren nebaren taldea kantuan ibiltzen zen tabernaz taberna. 'Sagunto' esaten zieten familia guztiari, Saguntotik etorritakoak zirelako.</p>

Transkripzioa

- Bai. Neure nebia egon bazan, bueno. Eurak zirian kuadrillia eta eurak ipiñi eutsen nebiari kantetan 'Los Manis'. Ta deittuten otsen: "Hamen...". Tabernetan sartzen zirinian, tabernakua ba euazan kantaten edo koadrilla handixa ordun txikiteuan. Txikiteua baiño, bai eitten zan txikiteua bai, baia ongo moduan txikiteua ez zan eitten lehen. Lehen, hamaiketakua-ta jaten ebezen, zaharrok zirinak hamaiketakua [...]. Kuartillo bat ardau atara sei lagun-bost lagun, zenbat daozen. Gitxi egoten bazirian, ba koartillo erdixa, basotxun ha edateko. Nok galtzen daben, haretzek paga. Ta zeuzer [...] bazuezen ba kuartuillo bat. Ta holantxe egoten zin tabernetan kantetan. Ta sartzen zirian igual batzuk kanta batzuk ba berba [...] latxeik. Ta sartzen zirin: "Ixi-ixi! hamen datoz kantoriak, hamen datoz kantoriak!". Jakindda zozer kantako dabena, ze beti egoten ziran kantaten-ta. Eta horrek kantak kantaten ebezen ganera [...]. "Abillak diz honek mutillok ba!" mariñeruak. "Abillak diz honek mutillok ba! Edozein kanta ataten dabe. Eingo neuke posturia, harexek Fernandok ingo bazan, harexek Saguntok". "Ez da Sagunto" esaten otsan beste batek. "Antsotegi da-ta". "Ze Antsotegi?". "'Sagunto' Saguntotik etor ziren horrek-ta". "Ba, baia bera Lekittokua". "[...], baia handik etorri zan". Hauxa diskusiñoia gizonak.

11. 'Lekeitioko San Pedropeko iturriaren aurrean' kanta

- **Erref:** LEK-006/019
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:29:50. **Bukatu:** 00:31:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:

<p>Lehen kanta asko zekien, baina orain ahaztuta ditu asko. 'Lekeitioko San Pedropeko iturriaren aurrean' kanta abesten du.</p>

Transkripzioa

- Nik lehen asko, baia oin batzuk ez lehenguak. Amak-eta kantaten ebezenak asko ahaztu jadaz.
- Zeintzuk dekozuz gomutan?
- Ointxe gomutan gitxi, ointxe kantaten dizanak 'San Pedropeko' eta horrek. Eta 'Kalian gora kalien behera' ta horrek, ointxe bat daukou barrixa atarata, bat atarata dauko izena... Guk kantaten doun koroko baten nebiak. Ta bestelan, lehengua ontzek:"Hasi Talatik eta Portaleraiño". Horrek beti kanta diraz. 'San Pedropeko' hori.
" Lekeitioko San Pedropeko iturriaren aurrian,
hamalau atso atso despeskan dagoz,
'Askatasun' baporian"
Despiskan zan, antxoatan jutun zirinak. Ta 'Askatasuna' bapora zan 'Astakasuna'. Ta hortxe familixari [...] 'Askatasunekuak' esaten eutsen, 'Askatasunekuak'. Ontxe be bai. "Miren 'Askatasunekua' doia" eta beste bat euana "Nanusenekua". [...] hareri 'Nanusenekuak'.

12. Arraina garbitzeko "plantxak" portuan

- **Erref:** LEK-006/020

- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:31:02. **Bukatu:** 00:33:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Kaian, pare bat lekutan, plantxak (harrizko plataformak) zeuden. Horietako batean bi emakume indartsu aritzen ziren arraina garbitzen. "Txori txiki" (txanpon mota bat) batzuen truke arraina garbitzen zioten nahi zuenari.</p>

Transkripzioa

- Ta... [ahaztu jate], askatasunagaz.
 - [Baiña kanta...]?
 - Kantaten. Kanta... Juten zirian despeskan ama, nebia ta aitzia; ta ni geratuten nintzan armuzua eruten. On ez dao plantxarik. Lehen plantxa bi euazan: hamen, ta San Pedro pasa ta gero euan beste plantxa bat, han portuan. Ta ondo politto. Han makiña bat olgaten [giñun]. Han, hantxe bai eitten zala igiri, haretxetan eskillaretan. Ta hamen plantxan, hamen plantxia ta hori muturra eitten da ta harutz eukazan eskillerak. Ta hamen muturrian ixaten zan beti antzarra esegitteko posti ipintten ebena, hortixe Abade Moillara. Ta lantzian behin enbarkaziñoia egoten zan, igual, hamen. [...] muturra kenduta bazan, muturra kenduta ta gero enbarkaziñoia hamen, sokia eitteko. Ta, ordun, plantxia. Ta baporak etorten zirinian, neguan, besigutan ta papardotan-ta jundakuan-ta, asko jentia garbittuteko arraiñak, hantxe. Karo, norberak plantxia honan euan beherutz, ta hau lixo euan lez, ba askok, ze altura daukon, plantata hantxe. Plantxan planta, ta hantxe ganin despeska, etxera erun barik eskamak-eta, besuak-eta, hantxe, ta tripak-eta be itsasora bota ta, ba, hori. Ta andra bi eoten zirin a ello. Bi behinik behin, hiru ta lau, baiña harek bi, behiñik behin, ortozik egoten zirin, ganera, Maria ta Segunda aitzak. Ta harek asko, eurak [...] txori handi bateaittik-edo, ba haretxeri. Ba arraiña karriatuteko, ta harek pozarren, osea, txori handitxuaaz be, ba, bueno. Ein eitten eben ta... dirutxua. Txori handi bat asko zan ta, parte batera. Batek txori, bestik txori, bestiak hiru txori txiki emoten baeutsazan, ba, jo aurrera Maria-ta, ortozik. Fuerte zirian, ortozik. Euridxa, euritzan ta neguan be ortozik, ya kurtiduta azala. Ta gero euan ha beste plantxia, San Pedro pasata. Hori gero kendu hori plantxiori ta eskillarak be kendu ebezen ta halan dao gero, muturra haulan, kenduta. Ta besti zan San Pedro kilin-kalaku esaten eutsena. San Pedro pasata kilin-kalia. Harek eukazan eskillarak hamendik partetik, ta plantxia be bai. Gero hango plantxia kendu eben han, ta ipiñi ebezen eskillarak, motor-txikiñak-eta asko atrakateko, euren otzarak-eta ekarteko, ipiñi eben eskillarak, osea lau eskillara-edo, beste deskantxillua ta halantxeik. Ta, bestela, lehen plantxi euanian, horko muturreko plantxia, ta tinglautik honutz beste plantxa bat, mari behera euanian [...plaittik hara] bardin pasaten ziñien.

13. Txikotean (sokasaltoan) "baldonga-baldonga" kantatuz

- **Erref:** LEK-006/022
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:34:24. **Bukatu:** 00:36:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Txikotean (sokasaltoan) ibiltzen ziren neska eta mutil. "Baldonga-baldonga" kantatzen zuten. "Tengo un niño chiquitín" ere kantatzen zen.</p>

Transkripzioa

- Txikotien, txikotien eitten genduan, soka, bueno, korrika. Korrika zan ha saltua. Ta, bestelan, ba, tenplau, neska ta mutil. Mutillak listo eoten zirin saltateko; astun moduan saltaten eben igual baiña. Gaur be, gaur eon naz, ganera, kantaten horrekin "Baldonga, baldonga, date la vuelta ronda... - nundik jatort niri hau kanti ba?- para que supieras cantar y bailar. Date la ronda, date la vuelta ronda para saludar". Oseake, txikotian bi eraitten ta bat saltoka. Ta bestiok kantaten "baldonga, baldonga" ta bueltaka "date la vuelta ronda para saludar", soka bertan, [...] ta sartzen zan gero beste bat. Harek saludaten ebanian, bestia sartzen zan. Ta mutillak esaten "Hala, haunek saluduk eitten, guk be eingo douz saluduk", "Ez hau nesken kanti da, zuek ez zarie mutillari kantako 'baldonga, baldonga' esaten eutsaun, " 'Baldongo-baldongo' kanta biharko dou /bikou/" ta "Ez" esaten. Ta hau bestiau, hori: "Tengo un niño chiquitín". Hori... Hori? Bueno, hor mutillak be bai. Erain be bai ta gero soka salta be bai. "Tengo un niño chiquitín". Honek, e, bi soki emoten, ezta? Ta batek salta ta gero, urten orduko, bestik salta, oseake beti soka bi.

-Ta kantia zelan da?

- "Tengo un niño chiquitín como su abuelo, todos los días está el chiquillo enfermo. Es una calamidad, ojalá se muera, delefín, delefán, matarile rile ron". Haulan [...] gendun.

- "Ojalá se muera"?

- Aittitten modura: "Tengo un niño chiquitín como su abuelo, todos los días está el chiquillo enfermo. Es una calamidad, ojalá se muera, delefín delefán matarile rile ron". On, hori hasieriori nok asma eban ez dakit.

- Hori da letria hori: "Ojalá se muera"...

14. Agustin Chiquitin I

- **Erref:** LEK-006/023
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:36:25. **Bukatu:** 00:37:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Oso gizon dotorea zen Agustin; Don Agustin eta Agustin Chiquitin ere deitzen zioten. Arropa guztia ondo kobinatuta eramaten zuen, prakak, alkandora, galtzerdiak, zapia...</p>

Transkripzioa

- Eta...

- Agustín Chiquitin esan dotenian... bueno, pregunta zeuk.

- Ez, ez, ez, esan, esan.

- Euan... gixon famosua euan hamen. Dotoria gixona, ez zan altua ta holan,

baiña tentia bai, [...] tentia, baiña jazten zan “al pie de la letra”. Traje marroia eukitten baeban, ipiñiko eutsun, bueno, gorridxa be bai igual, baiña beixa pañuelua, beix argidxa; marroia izanda, igual berdia be bai, baiña, bueno, juegora. Zer ipintten eban, alkondaria be halantxe, kaltzetiñak be halakoxiak, trajiaz. Ze traje eukan, ze pañuelo euki eban, korbata be haxe eta kaltzetiñak be haxe.

15. Lekeitioko taberna tipikoa

- **Erref:** LEK-006/024
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:37:05. **Bukatu:** 00:38:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

<p>Lekeitioko taberna batez. Gizonek beren jakiak eramaten zituzten etxetik eta han jaten zituzten, edaria aterata. Tabernaren deskripzioa.</p>

Transkripzioa

-Saregiñen eoten nintzan lez ni, mailla bakarrak ya sareiñen. Ta ordun taberna bat euan, Primenekua dago on be bat, ezta? Bat dago, harek kanpotarrak daukona, gero Primenekua ta gero dago beste bat, ezta? Beste bat dao on, bai, Gau Txori-edo, ez Gau Txori hamendiku da. Ta hor euan taberna bat Maria Santonio ixenekua. Maria handi bat zan, semi be halakoxi ta Mari, alabi, be bai. Baiña, tabernia, osake, han taberna-tabernia, lehenaoko taberna-tabernia, beren mostradoraaz ta beren eskatzaaz-ta, ba, eitteko. Ta hor egurrezko banko luziak, bankukin mahaidxa luzia ta gixon asko eoten zirin han [...]. Ta ordun ibiltzen zirian askok hamaiketakua, igual [...] lauretakua, hamaiketakua be, lauretakua be bai, tarteratxutan hori, epelin jateko edo bestelan be bai, tartera, tarteri ta ogi zatidxa. Gixonak han juten zirin tarterakin tabernara, haxe lauretakua, [...] gero kartetan ein [hantxe] ta. Han doiaz euren jakidxaaz, baiña derrior, gizonak, derrior jakidxa erun bihar. Haxe. “Jakidxa arratsalderako”. Osea nahidxao eguerdixan, zeozer ganetik baeuan, andrik esaten baeutsan “ez daukat jakirik, ez dot erosi gaur jakirik ta ez dot... Arrautzia eruten ez badozu, ba”. Iñoix, iñoix toka jat gixonak, saria hantxen ta, arrautzia eskun ta ogi zatidxa bestian. Karo, arrautzia apurtu barik erunda, ta arrautzia eruten be. Ta, bestelan, edo arraiña edo etxin zeozer eindda edo kolaidxua prejidu [...]...oOdun kolaidxuak egoten zirin asko ta, ba, ahal dabenak ahal dabena, baiña jakidxa, makaillaua bada be edo zer dan, baiña jakidxa. Hoixe, tarteriaaz.

16. Agustin Chiquitin II

- **Erref:** LEK-006/025
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:40:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Don Agustin edo Agustintxu deitzen zioten Agustin izeneko gizon dotore bati. Zera kantatzen zioten: "Agustin Chiquitín, eres un galapín y por no trabajar, te has metido aguacil y a los pobres aldeanos no les dejas vivir y les quitas los cuartos para beber txakoli.". Beste kanta baten hasiera.</p>

Transkripzioa

- Agustin, gure Agustin, elegante. Elegante, dra. "Hamen Don Agustin!" esaten eutsen.

- Zer zan txikixa alturaz, edo zegaittik "chiquitín"?

- Bai, ez zan altua, ez zan, baiña, kanta, ba [...]. "Hamen Don Agustin" esaten eutsen bestik, "Et, et, et – [esaten eutsen berak]– Don Agustin... Agustin, e?". "Bai, baiña [...] Agustin zara zu, Don Agustin baiño". Ta nik beituten neutsan ia gixonak zer esaten eutsen, beituten neutsan beti korbatuari, pañueluari ta kaltzetiñeri. Beti fijaten nintzan. Ta gero amari esaten neutsan: "Etorri da Agustintxu". Gero Agustintxu dei... deittu ez eutsen eitten, baiña Agustintxu. Agustintxu. "Bai, biximodu makala Agustintxuk!". Ta kanta be dago beorri etarata, beorrentzako ha ixango zan: "Agustin Chiquitin eres un galapín y por no trabajar, te has metido aguacil y a los pobres aldeanos no les dejas vivir y les quitas los cuartos para beber txakoli." Beste zatidxa dao: "Agustín Chiquitin se quería casar y quería vivir a la orilla del mar y quería vestir pantalón, pantalón de...", "mahón" ez zan, ba. "Pantalón de... por eso...". Ez jat akordaten "pantalón" ba, akordako jat baiña. "Quería vestir pantalón de esmoquin", ezta? Bai, haulakoxe bat da. "Por eso le llamamos Agustin Chiquitin". Horrek orduntxe ataraniko kantak horretxek, zati bittan, baiña berari ataranikuk horretxek.

17. Txandalaren prakak jantzita baporera jaisteko

- **Erref:** LEK-006/026
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:40:20. **Bukatu:** 00:42:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Gizonek mahoizko prakak janzten zituzten normalean. Andreek gona, jertsea, bata... Prakarik ez berandu arte. Saregile zebilela, baporera jaisteko-eta txandala janzten hasi ziren, gizonak gora begira zer ikusiko egoten zirelako.</p>

Transkripzioa

- Bera elegante janzten zan.

- Elegante.

- Zuek zelan janzten ziñien?

- Ha elegante. Baiña gixonak haren modura ez, behiñik behin Lekittokuak. Arrantzaliak, ba, eukitten baeen jakia baten batek, edo jertsia edo... En jeneral praka mahonezkuak ixaten zirian.

- Domekatan be bai?

- Bai, barridxauak ipinita. Iñoix bai, lanazkuak, haunen modura, antzeko lanazkuak, grixak-edo, domeketarako, ba, zeozer jantzidxaua eukittek,

jake bateaz edo. Segun zeaz edo, kertsiaz bazan, ba, ,kertsiaz edo alkondaria, ba, bestelan mahonezko.

- Eta andrak?

- Andrak batatxukin, edo goni ta mariñera bat edo jertse bat edo, segun ze sasoi zan.

- Baiña prakarik ez?

- Ez, harek sasoiaren pentsa be ez prakarik.

- Zuk noz jantzi zenduzan lehenengoz prakak?

- Nik prakak jantzi nebazan sareiñen nabillela, baporera-ta bajatu bihar ixaten /bixaten/ nintzan lez josten, ba, hasi nintzan jazten... zer da hori? Txandala. Bestelan prakakin ez jantzitta, baiña amantalaaz juten giñin lez, akostunbra nintzan, ba, prakak erabiltten sareiñin gaozen artin, ba, txandala. Goikuaaz, ba, iñok be igarri be ez. Ta baporera bajatuteko-ta, hantxe eoten dizen batzuk espabillauk, ba, eskilleretan behera bajatu bihar, hantxe iztarrari begira egon ein bihar, bapora [...]. Ba ez, ba, hasi giñan ba prakakin, errezaio igoen be gora, ta errezaio bajatu be baporera txandalakin. Ta halan gero akostunbra nintzan kanpora be. Igual gero baporak itxoten banao ta ez badao... amantal barik eon banitzan igual, amantala iñoz kendu, lotsatuta lehelengotan, ta amantalaaz tapa. Baiña akostunbra nintzan gero praka... txandalakin.

18. Abarketak, oinetakorik ohikoenak

- **Erref:** LEK-006/027

- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:42:02. **Bukatu:** 00:42:46

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Abarketak erabiltzen ziren asko; gizonek domeketan abarketa zuriak. Zapatak eta plaierak ere erabiltzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Gero, ba, ya prakakin ta, ba, jo aurrera.

- Eta oiñetakoak, zelako oiñetakoak eukitzen zenduezan?

- Oiñetakuk korrientiak, betiko baltzak edo marroik edo.

- Eta abarketak eta holakoak?

- Abarketak bai. Abarketak usaten genduzen, gehidxen abarketia, gixonak be bai. Gero zan honek plaierak urten ebenak, baiña, bestelan, abarketak gehidxo. Ta gixon askok, ganera, abarketa zuridxak, pixkat holan elegantetxuk zirinak, janztekuak, abarketa zuridxak domeketan. Bestelan, ba, zapatak.

- Domekatarako zuridxe?

- Bai, holan udan ta. Ta bestelan, ba, zapatak, zapata batzuk marroik, baltzak edo, ba... Hor Fresnedok eukan zapateridxan, ta bestia han goidxan Margaritak be.

19. Chimbo xaboia eta "bolas maravillosas"

- **Erref:** LEK-006/028

- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:42:46. **Bukatu:** 00:45:27

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak

Laburpena:

<p>Arropak eskuz garbitzen ziren harrian, etxean. Ura beti izan dute. Amak, Saguntotik etorri zenean, obrak egin zituen etxean. 'Chimbo' xaboia erabiltzen zuten, baina baita "bolas maravillosas" izenekoak. Sosazkoak ei ziren. Behin burua garbitu zuen bola batekin eta ederto geratu zitzaion.</p>

Transkripzioa

- Eta garbittu zelan eitten zenduezan erropak?
- Eskuz.
- Eta nun?
- Harridxan.
- Etxian berton?
- Etxian, harridxan.
- Tau ra euki zenduen beti?
- Bai, euki gendun. Gure amak, lehelengo etorri giñinian Saguntotik, lehelengo biharra ein eban. Erdiko sua euan, bajua, baserrixdetan ixaten dan modura, egur suaaz erdi-erdidxan, erdiko sua, bajua. Gure amak lehelengo-lehelengo ein eban haxe altza, behekoa itxi euan modura ta ladrillo batzugin gora altza, ta hornillo bi atara, ta erdiko sua bertan erdidxan. Ta urik ez euan lez, ba, ura hamen hauna [gu jun giñian karin kara]. Atian sartun ta karin kara, ba, han pasillotik be ikusten zan harridxa hamendik [...] ta. Ta harridxa kendu eban ta ura ipini.
- Orduen, zuk beti euki dozu itturriko ure etxien?
- Bai.
- Hori da suertie!
- Handixeik etorritta, bai. Ta, karo, harridxa be ederra, harrizko, harrizko... Ez marmola ta horrek, harrizko hori, ta harridxa, beheko harridxa, ganera, honenbesteko harridxa bai. Gero sua hortik. Ta hantxe, hantxe txabona ta txabona. Ta gero barizta eban amak. Bertan tangarro baten, hor ipintten gendun beratu igual erropa [...] zirian, tangarro barruan ipintten genduan ta berton harridxan txabona, txabo Chimboaz en jeneral edo, bai [lohidxa] asko bazirian, "bolas maravillosas" esaten eutsen, bolak, bola zuridxak, txaboi [...] ur berotan sartunda. Ta mahonezko prakak-eta [...] marabillosuk zirian desde luego be. "Bolas maravillosas" zirian. [Ez dakit euskeraz haulan zirian, baiña]. "Bolak, ekarrixu bolak garbittuteko, ur berotan ipintteko" ta urteten zirian [ein kontu] sosak zirila. Sosia be usaten eben iñoix, lohidxao baeuazen erropak. Sosia, "sosa cáustica" esaten [...], sosia. Baiña harek bolakin ederto. Halakoxe bolakin eun baten buru garbittu, ule asko nik. [Tarzanena baiño]. Kabanen biharrian. Ta "Begoña, haxe da daukazun..., ulia gehittu ein jatzu, ba!". "Bola marabillosaaz garbittu dot uli". "Boliaaz? Txaboi emoteko boliaz?" "Ba, haretxeaz garbittu dot". Ez neban topa txaborik, bai txabo Chimbo bai, horreaz, baiña "hori, txaboi emoten ta hori, amak eitten nauena da. Ta "haunetxeaz eingo dot, ama biharrian dao". Ur berotara bota neban bera bolia, ta beraaz gero garbi-garbi ein, arrastra-arrastra, aklara itturriko ur hotzaaz, betiko modura, nik ur hotzaaz beti aklaten dot eta on be bai, ta haretxeaz. Ule asko neukan lez, ganera, pixkat [ondulaua] -ongo modura rizaua ez, hau permanentia da-ta baiña. Ta hori: "Begoñak ein daben lakorik! Erropak garbittuteko boliaaz ez dau garbittu ulia, ba?". "Ta, zer dotso, ba? -esan eutsan andra batek- Ederto ez dauko, ba? Ondo ule ederra dauko behiñik behin. Hoba zeuek be eingo bazendukie haurixen".

20. Ardoari tragoa jo eta iturrira botila berdintzera

- **Erref:** LEK-006/031
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:46:36. **Bukatu:** 00:48:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Behin Begoñak ikusitakoa: ardo bila joan zen emakume bat dendara, gero, kanpoan, tragoa jo zion botilari eta iturrian berdindu zuen, ama konturatu ez zedin.</p>

Transkripzioa

- Ardaua edo iñoix ez neban [...], ba ardau pixkat, ba, mutillari emoteko ta, ba, hantxe. Gure hango kantoian euan taberna bat. Tabernia baiño, bueno, dendia be... tabernia zan ixatez, baiña ardau zaragidxak eukezen mahaidxan ta ardaua jentia asko haraxe, Martzeliñenera ardautan. "Han neska bat ikusitta daukat egun baten -konta neutsen, kantaten entsaidxuan gaozela, hantxe kontuk esaten ta, ba, ardaun kontua ez dakit zer, tranpak eitten zirinak eta horrek esaten-. Bai, neu nao ikusitta neska bat -esan neutsen-, on ez dotsut esango nor dan", "Ez esan be ein", "Eske ez dotsut esango -esan neutsen, ez jaten akordaten ta-. Eske ez dotsut esango, ze bozak arin korriduten dau ta". Martzeliñenin hartun ardaua kuartillo erdi; tragu ein otsan atetan. Ni beherutz netorren kantoian, Bergara kalia netorren ta karinkara euan hori dendiori. Ta han, atetan tragua. Haunan beitu otsan botelliari, ta Arranegira iturrira. Ta atzamarraaz apurtxu bat marka eban berak nora arte egon dan ardaua, ura bota eban [hantxe], beitu otsan ostera be, gehitxuo kontu egizu / kontixu/, ta bertan itturridxan ein otsan ostera be, ta han jun zan etxera.

- Uregaz beteta.

- Bai, tragotxua. Trago... bueno, kuartillo bat ardau. Kuartillo ta erdiko botelli zan, ezta? Ta kuartillo bat ardau. Ta, klaro, harek ha tragu emon otsen ta ha tragua etxin amak igarriko eutsan lez, ba harekin marka eban nora arte egon dan, ta iturrira. "Hauxe da /haixa/ martingalia -esan eusten- ta zuri ez jatzu horrek... ha okurridu?", Ez, niri ez jat okurridu, baiña ikusi neban zer ein eban", "Zeuk be ein bir zendun haxe!", "Ez neukan gogorik hori eitteko. Berak euki eban gogua ta ein eban, ta listo", "Ta amak ez eutsan esan...?", "Nik dakit ba amak zer esan eutsan, ba! Nik ikusi bakarrik ein neban hori, ni ez nintzan jun haren etxera esaten zer ein daben".

21. Emakumeek alkoholik ez zuten edaten tabernetan

- **Erref:** LEK-006/033
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:49:32. **Bukatu:** 00:52:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Ardoa edaten zuten etxean. Berak ere bai tragotxo bat. Klean ez. Lehenengo aldiz sagardoa san Antolinetan edan zuen txosnetan. Ardorik eta bestelakorik ez. Garagardoa, berriz, senargaiarekin batera, Saguntoko lehengusina etorri zen batean.</p>

Transkripzioa

- Ardaue norentzat erosten zenduen? Aittentzat?

- Guk, ez, ez neukan aittarik nik. Nebak euazan ta ama ta geu. Ba, tragotxua, hantxe.

- Ta andrak be edaten zenduen?

- Guk umiak garin artian,...baiña gero bai, gero edaten gendun ardaua. Tragotxu bat, e?

- Etxian bai, baiña kalia ez.

- Etxian. Ez, pentsa be ez, pentsa be ez kalia! Kalin lehelengo eran nebana kuadrillan, kuadrillan gebizen, baiña kuadrillian sekula be ez. Juten bagiñan be jaietan-ta be Leku Ederrena edo holantxeik, baiña hori, zer, sagardaua-edo eraten edo ura eskatuten ta zera. Ardaurik-eta pentsa be ez. Ongo modura, ba, kubalibrik eta mostuk eta horrek... Ez, mostorik be ez guk, ganera. Okurridu be ez daonik be, ganera.

- Andrak tabernara sartu be ez.

- Juten bazirian on, jaietan-edo, ba, kafitesnia erateko. Baiña, ipintten ebezen lez holako txiringituak plazan lehen, baiña ipintten ebezen, onbre, ardaua be eoten zan, ezta? Baiña jeneralian, Lekittoko jentia, andrak eta umikin-ta, behiñik behin, sagardaua eoten zan lez, sagardaua, jarrak hareri atara, jarroia edo jarra erdi edo segun zenbat lagun dozen. Jarria ta iual abellanak edo gaztaia edo intxaurrek. Abellanak edo intxaurrek edo. Jan [haregaz] umikin hantxe, San Antoliñetan-ta. Haretzek mahai handidaxak, txiringo handidaxak ipintten ebezen harek tolduagaz, mahai luziak, ta hantxen jesarten [...]. Han, ba, gurasuk eta iñoz hantxe umikin familidhan, hantxe, San Antoliñetan, ba, haxe. Ta pozarren, ganera, haxe daola ta. Klaro! Sagardau haxe edaten. Ta zerbezia ikasi neban eraten gixona dot... nebana ezautu nebanin. Bueno, ezagututen neban ordurako, ezta? Baiña, bueno, ya hasi giñan konfidxantzaz, e, nere lehengusiña bat etorri zan, lehengusua, neba-arrebak etorri zirin geu ezagututen urte baten, San Antoliñetan. Tratua baeukaun, ezta? Baiña etorri [ezin]. Ta eurak abixa eben etorriko zila eta etorri zirin. Harek pasa eben Sagunton, bueno! Ta nere gixonen laguna, Patxi. Begoña zan bera be, Mari Begoña [...] “ni Begoña, e? Hau da Mari Begoña, ni Begoña naix”. Nik Maria ez neban soportaten-eta, ez dakit zegaittik, manidxa. Ta honek, Patxik, erun gaittuzen Puertora. Bueno ordurako esan eban ze: “Vamos a tomar un trago”, “No, no, las mujeres no bebemos tragos. Agua, un vaso de agua”, “¿Cómo un vaso de agua?” esaten eutsan bestiak. Gusta ein jakon neure lehengusiña. Esaten eban “Hauxe da... urrunekua da ba”. “Berau be urrunekua da ta neuk badaukat ba” neure gixonak esaten eutsan, orduntxe hasi barrittan geuazan gu ta. Ta “Nik badaukat urrunekua ta, zeaittik ez? Gustaten bajatzu [...]”, “Eske neska politta da, ba”. Ta “Oye, me gustas mucho, ¿eh? -esaten eutsan- Oye, Maria Begoña, me gustas mucho, ¿eh? Pero igual que la prima, te voy a llamar yo Begoña, me gusta más Begoña”, “Pues lo que tu quieras” esaten eutsan bestik eta “Pues me gustas mucho. ¿No nos arreglariamos nosotros?”, “ Ah, pues no sé de qué quieres hablar de arreglarnos” ta bestiak [...], baiña ez eutsan klaru esaten berak, lotsatu be [...] erdera. “Gu, beitu, gu separako gara ta esaixu erderaz berorreri nahi dozuna” esaten eutsaun guk. Ta gusta jakon asko, baiña ez zirin ein. Bera jun zan [bi edo hiru egun pasa ebazanian] ta listo. Ta orduntxe ikasi neban zerbezia eraten eurakin.

22. Oso ona Trinidad kaleko iturriko ura

- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:55:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Lekeitio inguruko baserrietan sagardo asko egiten zen. Baina ura nahiago izaten zuten; ur ederra zegoen Trínidade kaleko iturrian.</p>

Transkripzioa

- Ta sagardau e san dozu.
 - Sagardaua, bai.
 - Hemen inguruen nungo sagardau e daten zenduen?
 - Bertoko baserridxetan ta gero [...] be bai. Baserridxan hamen sagar asko eoten zan, Oletatik ta Ipasterretik ta Mendexa ta hortik eta, ba, sagar asko eoten zan. On, nun eitten eben gero ez dakit baiña.
 - Zuek erosi eitten zenduen sagardaua?
 - Bai, sagardaua erosi. Gustora, ganera, sartzen zan. Ataraten neban egarridxaz, han sareiñetik jun eguzki gorritan ta egarridxaaz, ba, ura erateko baiña, “sagardau pixkat dao” igual gure amak, eta, ba, sagardaua. Baiña, bestelan, gehidxo eraten gendun ura, e? Ze ur ederra euan Trínidade kalia, iturri bat, on be badao itturridxa. Gure ama, etorten giñin etxetik, lehelengoko biharra eitten eustan, azunberdiko tangia emoten eustan ta Trínidade kalera. Ez dakit nungo, nundik etorri zan ura, baiña ur ederra hantxe. Haixe ur... litro ura, haixe eraten eban gure amak holan danga-danga. Iñoix ein eustan [...], baiña nik eraten neban lez han bertan, amari erun orduko, bertan eraten neban tangatik, ta “pixkat itxiko dotsut”, “Ez, ama, eran dot nik bertan, eran zeuk dana”. Litro ura, tangia, aluminiozko tangia. Haixe ura eraten, eguerdira orduko haixe. Gero etxin, ba, bat be ez, baiña haixe egarridxaz sareiñetik, urik ederrena haixe dala ta.

23. Koltxoiak jotzen

- **Erref:** LEK-006/038
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:57:03. **Bukatu:** 00:58:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

<p>Portu gaineko zelai batean jotzen zituen jendeak koltxoiak. Artilea harrotu eta gozo-gozoak geratzen ziren berriro.</p>

Transkripzioa

Hor goidxan, eskillarak ion ta hor goidxan, ba, esplanada handidxa, esplanadia eta zelaidxa, ze hor lehenago karabiñerun etxia eon zan. Gero portun egon zan, baiña karabiñerun etxia euan hor, [...] elixara orduko zelai baten, eta hamen behian esplanadia. Zementua edo harridxa, ez dakitt zer zan. Jentia eitten ebazan koltxoiak hantxen jo, oseake garbittuteko koltxo azala, ba, hutsittu ein bihar. Ordun, bertan azalian

eruan koltxoia, lanazkuak zirin lez, harek lanak ipiñi [...] koltxoi azalian, hantxe, ta eiñ, pixkat nasaittu, pelota beti eitten da hori ta, ta hantxe halako palo bateaz, ipiñi ta jo harexek koltxoik, jo-jo, erain-erain paluaz. Ta jo oster a be, ta jo oster a be, ta geldittuten zan, ba, harro-harro. Karo, jo eta jo, harek batunda eon edo han zabaldua juañ! Karo [...] gustora ez gendun eingo lo, ba? Ño! Koltxo bigun-biguna. Ta hantxe josten ebezen gero, hantxe josi. Ta, batetik bestera be, harek formak emoteko, koltxo [...], unin-unian holako zuluk einda bestelako teliagaz ta haulakoxe orratz handidxakin, beste partera pasateko, josteko. Ta han geldittuten zirian jositta-ta.

24. Prozesio egunetan balkoiak apainduta

- **Erref:** LEK-006/040
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:00:44. **Bukatu:** 01:02:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Corpus, Aste Santu eta horrelakoetan egiten ziren prozesio egunetan balkoiak apaintzen ziren izara dotoreenekin. Kanean aldea ipinita egoten zen, eta han zeremonia egin ondoren prozesioa elizara itzultzen zen.</p>

Transkripzioa

- Kortiñak bai, eitten genduzan kortiñak be. Nik gitxi botaten neutsan, ez jaten gustaten, gero kosta eitten zan gehidxao ta. Ta iñoix [izaten zanian] dezentio-edo, Corpus Christy eguna ta, por ejemplo, edo San Pedruak dirazela ta. Korputz egunian be Bergara kaletik pasaten zan prozesiñoia. Eta, klaro, horretarako be kortiñak beti ipiñieran ta, ze ixarak ipintzen zirian balkoitan. Bergara kale guztia ixaraz beteta eoten zan. Ta atetak be bai, [...] atetak be tapa eitten ebezen. Corpus ta beste bi be bai, hiru zirian, “Corazon de Jesus”ena ta Eguen Santukua edo... Zein? Hiru prozesiño-edo pasaten zirian, ta balkoiak beti engalana bihar, klaro, ixara polittenak harakoxe.

- Ta zelako ixarak ekarten zenduzan?

- Zuridxak, en general, horretarako beti eukitten eben danak...

- Baiña hutsek? Zuridxek?

- Zuridxak, bai. Hombre! Ixena baeukan bordanikua amak, ba, beren ixenakin, baiña en general danak ordun bordaniko [...]. Bai hori, puntilla edo bordau euenak be bai. Ta askok horretxek, igual, eukitten ebezen balkorako eukitteko, usa barik ohian beti, eukitteko. Geure amak be bai halantxerik eukitten ebazan, puntilladunak edo bordaudunak.

- Gordeta apropos]?

- Bai. Ze hiru-lau prozesiño eitten zirin lez Bergara kaletik, beti Aste Santutan ta Niñuna ta hauxe Corpus Christyna-ta, ba, klaro, kaliak engalanaten. Corpus Christy egunian, hantxen behian, esan dotena tabernia, ardaia erosten genduna, hantxe eitten zan. Bentana bat dao han, atetia-edo, baiña hantxen bentanako [...] altaria ipintten eben, Corazon de Jesusen [...]. Paliua etorten zan, ta horreaz, abadia, barruan hareaz, barrun sartunda. Harek esaten ei eban, on berbia atzeratuta, Francok esaten ei eban ondiño faltaten jakola paliuan barrun jutia bera. Hareaz, beraaz, ezin naz akorda bere ixenaaz, Jesus, sagraridxua-edo,

hareaz. Eta hantxe altaran eitten eben lehelengokoxe erreberentzidxa eta gero oraziñoiak hantxe, ta igoten eben gero gorutz eta igoten zirian Trinitade kaletik Konpañiara. Elixatik urten ta hamendik, Bergara kaletik, gora ta gero tak. Ta gu balkoian, kurika handik.

25. 'Kolaixua', arrain lehortua, oso gozoa geratzen zen

- **Erref:** LEK-006/042
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:04:05. **Bukatu:** 01:05:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Barikuetan bijilia egiten zen. Arrain lehortua ("kolaixua") izaten zuten behar zenean jateko, uretan beratuta gero. Oso gozoa geratzen zen patatekin egosita edo beste modu askotara. Arraina nola prestatzen zen.</p>

Transkripzioa

- Eta Aste Santutan bijilixe eta.
- Bijilidxe baridxakutan, hasikeratik bera zazpi aste.
- A rajatabla, ezta?
- Bai, baridxakutan jan be ez okelarik. Bestelan be ez gendun asko jaten, asike igarri be ez egun bat gehidxoaittik. "Total..." esaten eutsaun amari. "Gaur ezin leike jan okela gauzarik" esan eban ta "Total, ama -esaten eutsaun guk-, aste guztin ez dou jaten igual ta". Ba hori jakia, baridxakutan ez jatiaittik, ba, igarri be ez.
- Arraiña izango bazan, bai.
- Arraiña bai.
- Problemia ixango zan.
- En jeneral baridxakutako hortxen jendik asko makaillaua-edo, harek kolaidxo sikuak-eta. Kolaidxuak, ez dakit badakixun zeintzuk dirazen. Momak eta kolaidxuak. Kolaidxuak asko eitten zan, asko atrapaten ebezenian, errepartidu eitten eben mariñerun artian. Ta garbittu, hamendik ta hamendik zabaldu, palua ipiñi hamen, zabalik eoteko, sikatuteko, ta gero balkoitari esaittik zirin. Ta gero, sikatutakun horrek, neguan, ba, jakidxa eukazun, noixnahi ez badaukazu aparirik, zer ipiñi edo, "ene! Kolaidxua". Ta sikatuta eoten zirin, ta uretan ipintten zenduan beratuten, ta beratuten zirin lez, gero egosi ta harek patatakin jateko, ba. Edo zopia ipiñi dozula edo koliflora ipiñi dabela edo, eta ganetik, koliflor hutsa gitxi dala ta, egositta, piper gorrixa berakatzari bota ta hori eta "ja comer colayo!" Prejiduta be bai da gozu, e?
- Arraiñe zelan preparaten zenduen? Gaurko antzera?
- Ongoxe antzera. Bueno, on plantxan ta ipintten diaz gehidxo. On erreta ta plantxan ta gehidxo dao ta.
- Eta lehen?
- Lehin ez, lehein txapa ganin-edo. Txapa ganin lo uniko lehin eitten zana kontu egizu /kontixu/ horrek, arenkak. Arenkia erreta hantxe txapan. Horixe akordaten jat bakarrik.
- Txapako labien ez zenduen eitten, laban?
- Ez. Gabonetan-edo amari okurriduten bajakon pastelen bat eittia edo. Gure ama abilla zan pastelak eitten.

26. Gabonetan karakolak eta turroi gogorra

- **Erref:** LEK-006/043
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:05:58. **Bukatu:** 01:07:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Gabonetan karakolak jaten ziren falta barik. Eta turroi gogorra, motrailuan zatituta. Gaileta surtidoak ere bai.</p>

Transkripzioa

- Gabonetan, Gabonetan ze jatordu eukitten zenduen?
- Gabonetan karakolak falta barik, behiñik behin. Nik pentsaten dot ontzen be haretzek gehidxenetan, karakolak. Hori falta barik, karakolak. Ta batzuk eitten eben aza lapikokua be ipiñi aurretik, karakolak eon arren. Ta gero

okelia edo bildotsa edo oillua edo, zer daon, ba, bakoitxak berak zer pentsa daben, edo arraiña, ba... Baiña lehelengotan karakolak, behiñik behin. Ta haixe.

- Ta postria?

- Postria turroiak. Hori falta barik.

- Bai, beti?

- Zatitxu bat bada be, behiñik behin, turroia..

- Umetan be bai?

- Turro gogorra! Bai. Gogor-gogorra ixaten zan, ganera. Ongo modura ez zan apurtzen ha, on eskukin apurtzen da, baiña ez. Ta listo eukitten eban [...] matraillotxua gure amak, ta kutxillua, gero zatidxak ebaitteko. Gogorak zirin ta! matraillua hantxe jo ta jo. Handitxuo urteten ebana, “ez –ba, karo, aillaateko danari–, itxon pixkaten” edo nagosidxenari hori emoteko handidxaue edo. Ta, ba, txikittuten hantxen, danari bana emoteko. Ta egun baten galleta surtiduk be bai, soltian saltzen zirin galleta surtiduak.

27. Kinkirrikoa, Lekeitioko ardo gozoa

- **Erref:** LEK-006/045
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:08:26. **Bukatu:** 01:10:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Gabonetan ez zen 'kinkirrikoa' faltatzen, ardo gozoa. Hala esaten zaio Lekeition. Bi klase zeuden, dultzea eta mikatzagoa ('arrantzixua'). Bollarren dendan erosten zuten.</p>

Transkripzioa

- Horrek, kinkirrikoa be ez gendun faltaten e?

- Zeintzuk?

- Kinkirrikoa. Zuk ez dakixu Lekitton zer dan kinkirrikoa? Arda gozuari.

- A.

- Kinkirrikoa, bai. “Kinkirrikoa ekarri bihar dou gaur”. Atzanengo kanpuan, jubilauetan, kanpotarrak zarienari, zeozer meridxenda-edo euki gendun-edo ta... “Gaur kinkirrinkoia eran bihar dogu”, “Ba, hoba ez...!”, “Ha tragotxua ondo eoten da ta” batzuek; “Zer esan dau, ba, ekarriko dabela?”, “Kinkirrikoa, eguardidhan jan ta gero”, “Kinkirrikoa? Zer, pastela-edo?”. Ez zekidhan harek zer dan, kanpokuak. Ta kinkirrikoa esaten eutsaun dultziari.

- Baiña hori Gabonetan?

- Bai, Gabonetan, arda dultziari. Gabonetik gabonera, gabonetik gabonera, kinkirrikoa. Baiña euazan, arda gozua, bueno, mistela, ta arrantzidxua. Nik nahidxo ixaten neban arrantzidxua. Baltzao, baltzao zan. Ta, baiña mistela zan, dultziao, suabio ta argidxao ta haulako kolorekoa. Baiña dultzio hau, nik nahidxao arrantzidxua. Baltza. Ta gurin en jeneral arrantzidxua eruten genduan ta igual hurrengoko jaidxian, ba, bueno, ba, mistela. [...] kuartillua bat erun bihar dana, kuartillu erdi ta kuartillu erdi bidxak.

- Hori be, ze erosten zenduen, arda normalan lekuan?

- Bai, hori han, denda baten. Dendan, osea nahi dozun /naixun/ dendan,

baiña denda bat eoten zan beheko kalia, Boillarrenekua esaten eutsiena, Boillar eukan apellidua ta. Boillarrenekua. Ta haraxe, ze, al por mayor [...] eitten zan lez saldu han be, ba, han bidoiak euki ebazan berak, haunako barriltxuak, ta hantxe ixenak ipinita eukitten ebazan. Kinkirrikoa.

28. Aulestira jenero bila gose denboran

- **Erref:** LEK-006/047
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:10:55. **Bukatu:** 01:12:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra denborako ogiaz, txuskoaz. Txarra. Zopak egin eta hondora joaten ei ziren. Aulestiko baserri batetik ekartzen zuten jeneroa gose denboran.</p>

Transkripzioa

Gerra denporan panaderidxia euki eben. Ta txuskua, haunakoxe txuskuak zirian. Nik harek txuskuak... zereaz eiñikuak zirian [gerran]? ze ze, bihar dan moduko uruna ez zan behiñik behin. Zopak eitten genduzan kafitesnitarako, ta hondora juten zirian. Zopia nahi bazendun armozutan, hantxe koillariaaz eurak ezin topata, hondora juten zirian. Esaten eutsaun: zeren urunaaz diz eze? Arto-uruna balitzateke be, [...] baiña... Arto-uruna, artua, jaten genduan. Morokilla jaten genduan. Ta artua be bai. Baserritik eindda, hor ekarten genduan. Guk erun arraiña, aiña eukaun bat, Allustian. Neba zaharrena, hil zana, bueno, zaharrena ez, bigarren mutilla zen hil zana, harek eukan aiña Allustian. Ta juten giñian, baeukan lez gure amak amistadia, hamar mutil euki ebazan berak, koño! Nahi ixan eustan / naixaustan/ itxi eurenian, amaaz eun baten jun nintzanian arraiñak eruten, ta handik ekarri biberak: indiarak, arto-uruna, ogidxa, artua, ba, sagarrak-eta, ba, ekarri genduzan. Guk eruan arraiñak eta...

29. Karabineroak kontrabandoa zaintzen

- **Erref:** LEK-006/050
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 01:13:07. **Bukatu:** 01:15:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak

Laburpena:

<p>Kanpotarrak ziren karabineroak. Bat zital-zitala ei zen, beste bat jatorra. Honek harreman ona zuen herritarrekin. Kontrabandoa zaintzea zen haien eginkizuna. Tabakoa, kafea, sakarina eta horrelakoak ziren gaiak. Donibane Lohizunen erostenei zuten jeneroa.</p>

Transkripzioa

- Ta karabiñeruak nungoak ziren?
- Ba! Kanpokuak danak. Jaeneku dala edo Valenciaku dala edo Andaluzak. Andaluz-andaluzak etorten [...] "Poque le dice que [...]?" Nok entendidu

batzuri!

- Ta zelako hartuemonak euki zenduen lekittarrak eurekaz?

- Ba, batzuekin ondo, e? Baeuan, bat euan zittal-zittala. Ta beste bat ona ta hain mariñeruekin-ta, ba, ondo portaten zan lez bera, karabiñerua, emon eitten eutsen. Eskuaaz bada be, aunke sea, karruari igual sakatuten eutsen harek eta lagunduten, osake, ona bera; jende guztidxaaz: “Buenos días, y ¿qué tal?”, “¿Qué tal la pesca?”, “¿Qué tal la noche? y tal”, ta, hartuemonak eukan mariñeruekin. Bera holaku zan lez, mariñeruek be bai beraaz. Lantzin atun bat-eta emoten eutsen. Baiña beste bat eoten bazan, ha raruozan lez, hareri ez eutsen emoten. Ta orduan harek eukan, beori. Ta gero be keja eñ ziran han, harek arraiña eruten dabela ta, “tal y cual”. Ta egun baten esan ei eutsan “Es que compro más barato, les compro, no me dan, les compro, pero más barato”.

- Bai, bai.

- “¿Y por qué no...? ¿No me darán?” “Si compras ya te darán”. Bestik be, ba, ezin esan ba “Me han dado”. Hareri emoten eutsen, ta besti... jenidxoduna zan.

- Eta badakizu, holan, karabiñeruek eukitzen baebien prolema-rik holan, kontrabandoa dala itsasotik edo... entzunde dekozu?

- Eoten zan, horretxeaittik eoten ziran karabiñeruek. Eoten zan hori, Frantzidxatik kafiak-eta, ordun kafik-eta ixaten ziran. Ez dakit gero droga konturik ordun, baiña ordun kafia-ta ixaten ziran. Lanak-eta be bai, honek, jertsik-eta eitteku-eta. Ta, ba, haulantxeik, azukrik- eta be, gauza asko. Aspirina, honek, aspirina barik, e, bestiak, horrek, dultziak, azukre barik, usaten ez dabenak, diabetisa-ta daukenak eta.

- Sakarina.

- Sakariñak-eta. Ba, estraperlun [ein kontu], ta karo, baiña kafik eta hortixeik beti.

- Estarperloa?

- Estarperlua. Ta, karo, harek bijilaten eben Ondarruko kamiñotik, beti bijilaten eben enbarkaziñoia [...] honek be atento eoten ziran.

- Baporietan-eta mobiduten zan?

- Batzuk jun eitten ziran, enbarkaziño txikidxagaz, igual. Ba, jun haraxe, ba, hara doila ta, ba jun San Juan de Luzera, jeneralmente, San Juan de Luzera [...] haxe don lez, ba. Haxe, Donostittik jun dalakun, ta hau ta bestia, ta ekarten ebezen. Lihorrez be bai asko juten ziran San Juan de Luzera. Lihorrez be jentia. Bihar ebanak, holantxeik emoten eutsezen apuntiak, zer ekarri, ta bi juten baziran, igual sei launentzako-edo ekarten eutsezen gauzak [...].

- Ta entzunda dekozu holan inoiz, baten bat harrapa baebien [kamioneru] edo...

- Bai, iñoix. Lekittokorik ez jat akordaten, baiña... susmua bai. Eon zan, fitxata eon zan, hamengo lekittar bat. Handixik bixi zan, gerra denporan junda ta baiña harek asko, harek estraperlu asko.

30. Lekeitioko aduana

- **Erref:** LEK-006/052
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:16:15. **Bukatu:** 01:18:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Astilleroan aduana egon zen. Gogoan du hura eta beste eraikin batzuk sutan zeudela sartu zirela tropa frankistak herrira. Bandera errepublikanoa egoten zen aurretik. Gero Itsasalden egon zen aduana.</p>

Transkripzioa

- Ta lehengunien be esan zendun han Astilleruan aduania egon zala?
- Bai. Lehelengoko astillerua, harek etxiak, han aduania eon zan. Gu ume mokuak giñinian, sutan euan aduania ta ONU-neko txaleta, oseake, karo, on Karraspidxorao daona, ta hau palazidxua. Hirurak euazan sutan. “Ama – diñotsat neuk-, palazidxua erreten dao, hangoko be bai, ONU-neko txaleta be bai”, “Bai, aduania be bai” diño gure amak. Ta, klaro, aduania be arboliax kenduta [...], ta hirurak euazan sutan. Ta horren suen tartetik, kamiñotik zihar etozen lez soldauak, suen garragaz ikusten genduan pertsonak pasaten-pasaten. “Han datoz soldauak!”, “Ixi -geuri-sartun barruan. Eon geldi-geldirik danok. Sartun han barruan, kamarotitan -esan gaittuzen gixonak-. Sartun kamarotitan ta ez urten handixerik”. Geuk bakarrik urten genduan atzanengokuak Lekittotik.
- Eta aduanan zer egon... nor...?
- Ez dakitt nor eongo zan aduanan ordun momentun. Ze gero aduana bai ezautu neban... Ha ordukua ez jat akordaten, aduania hantxen euana bai, ta republikano banderia eoten zana be bai, han. Moraua, horidxa ta... Zelan diraz? Horidxa, moraua ta berdia-edo? Ez dakitt ze...
- [...]
- Hiru, hortxe hiru kolore dira, baakitt moraua ta horidxa aurrin dirazena ta, ez dakitt. Bueno, dana dalakua. [...] fija nitzan eoten zana hantxen. Ta gero eon zan aduania, ontxen barra Itxasalde barik bestia daona, Goitiko-edo. Plazatik ez zara eon? Bueno, hori, Itxasalde dago, plazara orduko han kantoian behera bajatuta, Itxasalde, gero hamen eskillera batzuk dao, kantoia ta gero dao Goitiko tabernia. Hortxe eon zan gero aduania. Hor ezautu neban horko gixonak-eta, ezautu nebazan. Sareiñen eoten nitzan lez hantxe, ze Itxasalde ez euan, bodega bat zan ta zarratuta eon zan. Gixon batek eitten eban gero limonadaduna, limonadakin-ta biharra barretarako, errepardidore modura. Haxe, beste biharrik ez euan lez, topa eban haxe biharra, limonadak-eta errepardiduten. Ni eoten nitzan hantxen sareiñen, ez zan lez barrik eta eon, bera Rubio, Rubio, etorten zanian, beti ahal dala, eoten nitzan ba atetik kanpora, bera datorrenian limonadak kargaka edo sifoiaxin-edo badator be. “Trankil -esaten eustan-, trankil”. Karrotxu bateaz etorten zan ta, ba, hantxe eoten. Ta aduania euan hantxe.

31. Salbokonduktoa

- **Erref:** LEK-006/054
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:20:40. **Bukatu:** 01:22:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Salbokonduktoa oraingo karneta bezala ei zen. Gordeta dauka bat etxean, paper bat da datu pertsonalekin. Herritik kanpora irteteko zen beharrezkoa.

32. Etxetik etxe marineri dei egiten

- **Erref:** LEK-006/055
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:22:17. **Bukatu:** 01:24:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Etxetik etxe deiak egiten ibiltzen zen Begoña. Zarata asko ateratzen zen, batetik zurezko oinetakoak erabiltzen zirelako eta bestetik aldabak hots handia ateratzen zuelako.

33. Ontzi berriak bedetatu ondoren, monjorra, otordua

- **Erref:** LEK-006/057
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:24:39. **Bukatu:** 01:25:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

Laburpena:

Barku berri bat egiten zenean ontzian, bedetatu egiten zuen abadeak. Ereintz adar bat ipintzen zitzaion. Langileek otordua egiten zuten, "monjorra".

34. Amaren ardurak eta lanak jaunartze arropak aurkitzeko

- **Erref:** LEK-006/059
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:26:12. **Bukatu:** 01:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Eskola zein dotrina erdaraz jaso zituen, monjetan. Asko kosta zitzaion amari jaunartzea egiteko arropak eta zapatak bi ahizpendako aurkitzea. Lehenengo jaunartzerik ez zuen egin.

35. Santinean ezkontza-bazkaria

- **Erref:** LEK-006/061
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:34:12. **Bukatu:** 01:36:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Beltzez jantzita ezkondu zen. Hamazazpi lagun bildu ziren. Diadema bat

eraman zuen. Santinean bazkaldu zuten. Jatetxe horri zuzendutako kanta.</p>
<p>

Transkripzioa

- Zu ezkondu ziñenian, zelakoa izan zan zure ezkontza-egune? Ez zan izengo gaur eguneko modukoa?
- Ez. Ba, gu zenbat jun giñian? Hamazazpi laun-edo.
- Hamazazpi lagun.
- Baltzezko jantzitta. Erropa politta.
- Baltzezko?
- Bai.
- Ulia zelan [zendun]?
- Buruko... ha koiñatiak itxi eustan ["que no compre"], ariñao ezkondata euan lez ha aurreko nobienbrian, haulako diadematu bat eukan tulagaz. Berak arpeidxan-ta erun eban, nik [...]. Ta bera, diademia ezin ipinita neu [...]. Beste guztidxengana jun nitzan ta neu, ta nire koiñatia planta " ai, koiñatia, ezin dotsut ipiñi". "Hamen haulan sartunda ipitteko hori" esaten neutsan. "Ekarrixu armaridxua", koketia ordun salan eukaun eta espillua eukan lez, [...] "orraztuta nao atzo, ta, total, hamen hau sartzeko, ez dot bihar tulik. Ba berau diademia nahiku dot, zetako bihar dot gehidxao ba?" Ta sartu neban. "Mírala a ella -nire koiñatiak-, fíjate qué tranquila está. Tú misma te has puesto", "A ver. ¿Quién me va a poner? Esta está temblando, tú no querías ponerme, pues alguien [...]. No iba a traerle a la madre de la cocina aquí, para que me ponga una diadema". Ta haretxeaaz diademiaaz. Ta ez dakitt on tulaaz badago ala hutsik badao. Beittu, ahaztuta nao, tulaaz badao.
- Eta gero zer? Zer egin zenduen, banketie- edo?
- Gero Santiñera. Santiñian jan genduan. En jeneral Santiñera asko juten zirin ordun. Famosua zan Santiñekua ta. Karnabaletan-ta, ganera, Santiñekua zan... "En casa de Santi, hay buen sitio allí, hay una cocinera que se llama Antoni". Badaukagu gehidxo be Santiñeko kantak. Harek [...] gittarristak-eta karnabaletan dao... ixaten zan ha, bueno! Ta hantxe, Santiñian. Tabernan barik kanpuan dao harek terrenuak, terrazatxua hantxe, hantxe jan gendun, terrazatxua hantxe, kanpuan, tapata goidxa.
- Ta ze kanta gehidxao deko Santik, ba, holan? Gehidxao esan dozuz dekozela ta.
- Zelan?
- Kanta gehidxao, Santinak?
- Bai. Gero segidu eitten dau: "En casa de Santi, hay buen sitio allí, hay una cocinera que se llama Antoni. Cantemos a una, cantemos con dos - esaten dabenak-, cantemos con sal, en este jolgorio que da el carnaval. De locos nos tratan, no hay más que temer, que viva la tuna y olé!". Kantaten zan hori. Baiña askok: "que viva", hori, "Cantemos a una, cantemos con dos". Ez da "cantemos con sal", [...] saleroso.

36. Ansotegi `Andariña´ Madrilera oinez

- **Erref:** LEK-006/063
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:37:53. **Bukatu:** 01:39:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Ansotegi Andariña deitzen zioten aitonari. Berak ez zuen ezagutu, baina hura bezelakoxea irten da Begoña, "andariña", ibiltaria. Telegramak edo presazko gauzak zirenean, berak eramaten zituen abisuak. Madrilera ere joan ei zen behin presazko telegrama bat eramatera. Makilarekin beti.</p>

Transkripzioa

- Antonio Ansotegi nok esaten eban, ba? Aittitta, aittita Ansotegi gehidxao. Ansotegi `Andariña´, nire aittitta, aitten aitta zan `Andariña´. Esaten dabe [...] iñoix: "Begoñak dauko martxia!" Aittittak ez naben itxi ezer be ez, ez neban ezagutu be eiñ, ta itxi nau, bere modura, andariña ixaten. Besterik ez nau itxi horixe baiño. Andariña. Telegrama...Lehenao harek, zaldidxakin, karrokotxiak, horrek juten zirin. Telegramak urgentiak zirinian-ta, ba, halakoxiak, ta karteruk-eta eruan bihar dabenak, ariño aillaateko. Ta holako urgentia zanian: "Deittu Ansotegi andariñari." Ta telegrama urgentiak-eta gure aittittak. Madrilera be junda dao oiñez, en akellos tiempos Madrilera. Gure amari esaten neutsan nik: "Madrilera, amuma, ama, juteko..." esaten neutsan, aittak "makina bat pausu emon biharko eban, ba". "Bai, baiña kamiñuak libriao on baiño. "Bai, kamiñuk, baiña mendittik -ta juten zan, ez zan juten beti kamiñutik. Mendidxetatik juten zan ta".

- Madrilera?

- Bai.

- Oiñez?

- Telegrama urgente bat eruten.

- Urgente?

- Urgente, bai.

- Tardauko eban ba!

- Bai. Ta orduntxen entzunda gure amari esaten ebala beti, ta geuri esaten gaittuzen "Ta zuek be, aittitten antzian, iñora bazoiaze, Mendixara-eta juten zarie eta horra ez dozue eruten, baiña aittittak esaten eban ibili bihar danian, kilometro bat bada be, makillia eruteko beti eskuan." Harek beti makilliagaz, ta bere makilliagaz Madrilera artian.

- Ta Madrilera arte jua zan, baiña...?

- Bai. Eta etorri be bai.

- Bittartien lo eta zer eitten eban?

- Ez dakitt ba. Horixe ez dakitt. Badakitt haraxe jun zala eta bueltan etorri bere makilliagaz, telegramia entregata. Ta esan eben, esaten ebala, amak esaten ebala beti: "Danori esaten dotsuet, e? Pausu bat ein bihar badozue, kilometro bat ein bihar badozue, ba, kilometro bat, baiña makillia eskuan beti".

37. 'Txoloka', kaniketan eta 'txanpan' jolasean

- **Erref:** LEK-006/066
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:42:53. **Bukatu:** 01:45:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Asko olgatzen ziren gaztetan. Txoloka ibiltzen ziren intxaurrekin. Zulora sartzen. Baina jan egiten zituztenez, brixko hezurak erabiltzen zituzten gehienetan. Kaniketara ere bai. Jolasaren arauak eta gorabeherak. "Txanpan" ere ibiltzen ziren, 'txori txiki' edo 'txori handi' (txakurtxiki, trakurraundi) bana hartuta.</p>

Transkripzioa

- Ez dakitt ba zuk, holan, gauza gehitxua badekozuzen kontetako, gaztetako kontuek edo kantak edo...
- Gaztetako kontuak? Gu olga eitten giñin asko. Gu olga asko. Sokan ta haunan, txoloketara. Txoloketara, bueno!
- Zertzuk zien...?
- Gazte bateri esan neutsan txoloketan; ia zer dan txoloketara. "Txoloka!", "Ta zer da txoloka, ba?". Txoloka, intxaurre, intxaurre txoloka. Intxaurreak penia emoten eutsun, erosi ein bihar ixaten zirian ta. Zuluak topa ta intxaurrekin, [horrek ein] segun nora tokaten jatzun, haunako tokidxan-edo iual, tente nun zaozen, pausu bi edo hiru, planta danak batera, bardin medidan, ta txolo ein, hantxe zulun, zulun azertatera intxaurre. Baiña intxaurreak lantzin behin, gero, itxi ein genduzan, ze, karo, jan ein bihar ixaten zirin ta, ta harek erosi eitten zirian plaza merkauan. Eta ordun eitten gendun gero, brisko sasoia aillaa zanian, brisko hazurrakin, brisko hazurrakin. Briskua jan lehenengo ta gero hazurrak gorde, txikitxuenak ahal dala, handidxak barik. Eta handitxuak bazirian, ba, puntia gastaten eutsaun, ze harek puntak eukitzen dabez eta. On ez dao briskorik baiña. Ta txoloketara, karo, dzanga! Ta bestiak ez baeutsun... Iual jotzen bazenduan, kontraridxokua, ta sartzen bazenduan ha, ba zeutzako. Sartun dozun lez haren kontraridxuna, ba zeutzako ha. Ta gero kaniketara be bai; intxaurreak barik, ba, kaniketara gero. Kanikak holan barik, haulan jotzen genduan, iual, errazao joteko. Ta iñoix haulan geldittu, arra baten bidian, iual, ta arra bete, bigarren bidia eitteko, ba, arra bete. Zuluha hamen badao, ba, arra bete. Hamendixek, orduan, haulaxe, tak, gorutz. Kauen, arra bateaittik [...], ta taka. Haxe ez galtzera. Boltsatxuan gordeta. Zein abillao zan intxaurreak edo kanikak, eta boltsatxu baten aparte. Balidxo gitxio euenak boltsilluan, ta harek gastatera. Intxaurreak, intxaurreak pixkat feuo-eta edo bazirin, ustel tipua-edo, harek lehelengo gasta. Holantxenik ibiltzen giñian.

38. Salerosketa teknikak ondo ikasita umetan

- **Erref:** LEK-006/068
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:46:18. **Bukatu:** 01:48:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Umetan erosketak egitera joaten zen azokara. Amak instrukzio zehatzak ematen zizkion salerosketarako. Erregateoko teknika ondo ikasita joaten zen eta aplikatu ere ederki egiten zituen.</p>

Transkripzioa

"Ez juañ han altzuan [eukitten dabezeana], e!" [...] Arrautzetan-ta hori,

karua. "Altzokorik ez hartu, behien ganeuak hartun, behian daukozenak. Baiña esaten badotsu sei errial, esate baterako, zuk aginddu lau -pezeta bat-, aginddu lau, edo bost, ia emoten badotsu, baiña sei... seirak ez paga, jun beste bateana". "Ta horrek altzuan eukitten dabezen lez, horrek karuo diraz ta bardin dirazen lez arrautzak, hangorik ez hartun, beti karuo kobra dotsu ta". Esnia be... Ta ikatza, sutarako ikatza, hornilluk ekauzen lez, beren aitzia, holakoxe argala zan, altzo betekua zan, arrautzak eukitten ebazan altzun ipiñitta, ta beren aitzia ikatza ekarten eban. Bai arrautzak-eta, ezta? Baiña guk hareri ikatza hartzen eutsaun. Sakua, ikatza, hornillorako. Ta " Hareana, [aiztiana] juten bazara, horrek karuo ingo dotsu ta, zu jun, ikazdunaana jun zu, bestela Mendexako hareana", emoten eutsazan amak abixua, ta horretxeaittik [...] hainbeste ezautu nebazan. Ta on lantzin behin ezaututen nabe, Amorotoko horrek "Ene! Zu txikittan. Ene! Zu Amoroton ezautu ta Mendixan ezautu" ta "bai". Karo, hantxen lantzin bateaz. Esnia kuartillo bat errila, "Zuk agindu txori handi bi -esaten eustan-. Bestelan, hamabost zentimo esan ta gero igual agindduko dotsu berak hoge zentimo ta. Edo emoteko ta, ba zeuk esan barik [...]" Ta halantxek erregateaten, ta erril bat. Erril bat, txori handi bi. "Ganera ez daukat txori handi bi, hamabost zentimo daukat", "Hamabost zentimo, umetxua? Hoge zentimo", "Amak ez nau... -baneukazan- amak ez nau emon ta, bueno, hareri esango datsat ia emoten banau harek", "Etorri zaiz, etorri zaiz koittadu hori!" Batzuk penia hartun, beste batzuk ez, asike, ba, emon be ez. [...] Bajatu bihar prezidua ta emoten neutsan hamar zentimo eta kuartillua.

39. San frantziskuak, urdinak, bost kantoia, urtebeteak... sagar gozoak

- **Erref:** LEK-006/070
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 01:48:40. **Bukatu:** 01:51:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserrria » Baserrriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserrria » Baserrriko lanak » Sagarra, sagastia

Laburpena:

<p>Sagar mota bat zuen oso gustuko: San frantziskua. Arropan orbanak uzten zituen. 'Urdinak', 'bost kantoia', 'urtebeteak'... ere oso gozoak ziren labean erreta. Orain ez ei dago halako sagarrik. Labe publikoa zegoen Lekeition eta jende askok erretzen zituen sagarrak han. Behin berak eramandako kazuela aldatu eta txiki bat utzi zioten. Berreskuratu zuen.</p>

Transkripzioa

- Ta "sagarrak honenbestian". Karo, altzokadia ipintten eban. Ibiltzen zan lez sakutxuak edo ipiñitta bertan halako baten. Niri gehidxen sagarra gustaten jaten, gazak, "Sanfrantziskuak". Halakorik ez dao on, e? No existen, hamendik behiñik behin. Urtiitan be ez. Gazak ziran, baiña jaten zaozela erropara-edo, beren gotik-edo, olvídate, ha mantxi betiko, ez jakon kentzen.

- A, bai?

- Lejatan ezin zendun sartun erroparik, koloraurik, erraidxa eon zala edo loria eon zala-edo, erropia ezin sartun, koloriñetakua lejatan, ta mantxiaaz beti. "Mantxia ein dozu?", "Bai, sagarrak ein nau". Ta handik egun bidxera

edo, kanbidxa, iual, erropia ta “[...]”, “eske zoridxoneko sagarrak, Sanfrantziskuak, gehidxen gustaten jat eta hantxe beti mantxia”. [...]. Ta bestiak, “urdiñak”, garratzak. Gorridxak zirin, baiña “sagar urdiñak” esaten eutsen. Ez dakitt ba zer [sasoikkuk zin]. Halakorik ez dao on be. Ta gero “boskantoiak”-eta bai, horrek garratzak, Gabonetakuak eta, “boskantoik” eta “urtebetik” eta horrek garratzak, bai, horrek laban erreta. Etxitan eitten zan, baiña asko eruten genduan, gu Bergara kalia baiño harutzo, Txirristen onduan daon kantoian, han euan labia, oseake, artuk-eta eitten ebezen. Ta libre ixten eben jentiari, kazularan, baiña markia erun bihar norberak, kazularak erretoko laban [...]. Lekitto erdidxak bai eruten ebazan sagarrak edo madaridxak edo [...] sagarrak haraxen. Ta, karo, igual indiarren hori, ganeko azala, ta askko, iual, indiarrena ipiñi, ta gero kazularia igarri bihar norberak. Ta niri egun baten ein eusten, txikiña itxi ta handidxa eruan. “Ene! –esan neutsan eurari- hau kazularia ez da niria”. “Ez dozu ekarri inddiarraaz, horrek?” diño berak andriak. “Bai, baiña niria haunako handidxa ixan da, hau txikiña ez da ixan niria”, “Auntxe be haretxek lotsabagiak eiñ dau”. Andriak ezautu eban. Ez zan ixan estreñia. Ta “ixan da [...]”. Bai, ixena esan eustanian, urten neban: “Emete, Emete, Emete! itxon pixkaten!”, “Zer pasaten jatzu, maittia?” diño harek. “Neure kazularia da hori, zuria han dao. Itxi [...], hori neuri da”, “Zuria? Holakoxerik be!” diño. “Bai, neuri da hau. Kazolaria ezautu...”, “Kazuelaria ezautu dozu ala?”, “Bai, ta markia be bai, popan be markia dauko ta”, guzurra zan. Ez eban nahi emon, ta neuk be... Harek, han, panaderiko, labako andria han euan beira kantoian, ia emoten banau, ez banau. Ta erun neban ta han igo eban.

40. "Arraidxueta-rikan!", galdutako espresioa

- **Erref:** LEK-006/072
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:51:34. **Bukatu:** 01:52:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Gogora datorkio orduan esaten zen espresio bat: "arraixueta-rikan!". Orain ez ei da esaten. "Arraixueta-rikan, sekula ez dot holakorik entzun!" Lehen esaten zen berba asko galdu egin da.</p>

Transkripzioa

- “Horraitiñok, arraidxueta-rikan!”. Hori lehenao [...] gure amak eta be bai. Ez dakitt zetatik. “Arraidxueta-rikan! Halakoxerik be ez dot ikusi” esaten eben. On ez da esaten, baiña ordun “arraidxuta-rikan”. Zeaittik zan? “Arraidxua” ba, bai, baiña “arraidxuta-rikan”. “Arraidxuta-rikan! Sekula be halakoxerik ez dot entzun”, iual, [...] zeozer: “Arraidxuta-rikan! Handidxa pasa da, gero!” [...] -edo, “arraidxuta-rikan”.

- Bai, bai.

- Bai, berba barridxa.

- Bueno...

- “Arraidxua!” hori bai.

- Lehen asko ibiliko zan.

- Lehen bai, lehen asko. Goixin be pentsaten eon naix: “Nik [...] amaandik nik berba asko jakin nebazan”, esaten ebazanak holan, soltin esaten ebezanak, baiña... Horixe etorri jat neuri gaur goizin.

- Gaur egun galduta asko. [Hortako berba asko egongo zien].
- Bai, bai, holantxe gauza asko.

Ansotegi Txakartegi, Begoña | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com